



**EZ PASA ETA EZ ONARTU!
JAIETAN ERE:SEXU ARASORIK EZ!**



BAI BAIEZKOA, EZ EZEZKOA

Otsaileko bilkuran onartutako Ordiziako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Igo udal Planaren testuinguruan, eta Ordiziako Udaleko Berdintasun sailetik (Gizarte Ongizatea), ondoko kanpaina berrartzen da: *“Bai, Baiezkoa da eta Ez, Ezezkoa. Ez pasa eta ez onartu! Jaietan ere: sexu erasorik ez!”*.

Kanpaina hau aurreko Santa Ana jaietan hasi zen, eta Euskal Jaietan berriz sustatu nahi da, festa giroaz gain, baita bere neurrigabekeriekin, emakumeen aurkako erasoak ere hazi egiten baitira.

Kanpainaren helburua, festa giroan emakumeen aurkako erasoaren aurrean gizarte jarrera bateratu bat sustatzea da, emakumeek herri eremu eta jai seguru batzuetarako duten eskubidea aldarrikatuz.

Mezu hau ahalik eta gehien hedatzeko asmoz, erakunde, ostalaritza saltoki eta herritar guztiak Euskal Jaietan zehar, **asteazken goizean herriko kaleetan banatuko diren eranskinak jartzera gonbidatzen da.**

Ekintza hau urtean zehar udal elkarteekin lankidetzan arituz, bereziki Kimetzekin, eta Udaleko sail desberdinekin koordinazioan arituz garatuko diren ekintza multzotik bat gehiago da.

GAZTEEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOA
OFICINA DE INFORMACIÓN JUVENIL
Barrena Jauregia,z/g 20240 Ordizia
Tef: 943 80 56 34 ,[e-mail:gazteria@ordizia.org](mailto:gazteria@ordizia.org)